

≡ Azalpen gisa Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegia



SEIk plazaratu dituen datuak oso adierazgarriak dira. Eta ondoko asteotan plazaratuz joango diren gainerakoek ere, argi handiagoa emango dute.

Lau urtean behingo Erroldak batetik, eta hango eta hemengo inkestek eta ikerketek bestetik, zinez euskararen egoera zehazki ezagutzeko oinarri sendoa eskaintzen digute.

Jadanik emandako azalpenek garbi utzi dituzte ondorio batzuk: askoz okerrago doazela gauzak Iparraldean Hegoaldean baino, honi gagozkio larik Nafarroan edo Araban okerrago doazela Gipuzkoan eta Bizkaian baino, erabilpena batez ere gazteen artean doala gora, eta abar. Esperantzarako ateka zabalik dago, hitz batez. Baina plazaratutako zifrok osoki eta xeheki aztertzen badira, kezkatzeko arrazoiak ere badaudela ageri da.

Zantzurik larriena hau da: euskararen kale-erabilpenaren hazkundera, oro har, geldotzen ari dela. Euskararekiko atxikimenduari eragiten dioten faktoreen mul-

tzoa errotik aldatzen ez bada, erabilpenak aurki egingo duela tope.

Noiz egingo? Zein heinetan? Kurbak ikusita, sei/zortzi urte barru joko du gailurra erabilpenak. Maximo bat izango dugu.

Zein heinetan? %15 inguruan, eta ezagueraren maila %30 inguruan egongo delarik.

Hots, puntu horretan, erdararen erabilpenak %85 iritsiko du. Memento horretan, erdararen erabilpena euskararena baino sei aldiz handiagoa izango da.

Zertan geldituko da "bi hizkuntza ofizialen parekotasuna"?

Beste ondorio kezagarri bat.

Gaur egun euskararen ezagueraren maila %26,91 delarik, oso erraz kalkula daiteke oinarri horren gainean, eta elebidunen leialtasuna eta anisotropia azken muturreraino eramanda, zein izan daitekeen erabilpen tasarik handiena.

Gaur egun %13,8 da erabilpen-tasa hori. Kopuru altua; inolako kontzientziarik ez balego, eta zifra estatistiko hotzen bidetik, %4,62 baizik ez bailitzateke izango.

Euskaldun elebidunak, nolabait esateko, jarriera militantea hartzen ari gara gero eta nabarmenkiago. Eta horrek azaltzen du tar-te handi hori: %4,62 "neurotik", neurketek erakutsen diguten %13,8 horretaraino. Baina urrun gaude teoriar irits litekeen %26,91tik (elebidun tasaren kopuru bera, bai, arrazoin matematikoengatik).

Gora joateko bide bakarra, hitz batez, oinarriak aldatzea datza. Erdaldun elebakarren kopurua urrituz (euskararen erabilpenari dagokionez, minbizia bera baitira erdaldun elebakarrak), eta euskalduntzeko arrazoinak azkartuz (euskarari funtzionaltasuna emanez: ekonomikoa, lan-postuetarako eskakizunetan, eta abar).

Gainerantzean alferrik ari gara; eta erabilpenaren kurbak aurki abiatuko dira beherantza.

Erritmoa motelduz doa

Laugarren kale neurketan erabilerak goiti egin badu ere, igoera apalduz doa

1989an lehenbiziko kale neurketa egin zenetik, euskararen erabilera haziz joan da Euskal Herri osoan. Lehen neurketa hartan herritarren %10,8ak egiten zuen euskaraz kalean, eta 12 urte geroago %13,8ra igo da kopuru hori. Urtez urteko erabilera handituz joan da, baina igoera horren erritmoa apaldu egin da azken lau urteetan.


1989 eta 1993 urteen artean egindako neurketen artean hazkundera 1,2 puntukoa izan zen, 1,1lekoa 1993 eta 1997 artekoa, eta 0,7koa baino ez azken bi neurketen artekoa. Bistan da, beraz, erabilerak goiti egiten jarraitzen duen arren, erritmoa ez dela bera.

Igoera hori txikia da, eta UNESCOk aditzera eman zuen bezala, datu hauek bistan uzten dute euskara arrisku-egoeran dagoela, eta are gehiago aztertzen badugu gorakada hori ez dela modu berean gertatzen herrialde guztietan. Izan ere, Gipuzkoa eta Bizkaian igotzen da gehien euskararen erabilera, eta bi lurralde horiek, duten biztanle

kopuruagatik, pisu handia dute Euskal Herriko datuetan. Hortaz, Euskal Herriko igoera bi lurralde horien igoerari zor zaio. Gainerako lurraldeetako datuak ez dira hain baikorrak, eta euskaraz ez du aurrera egin, ez Ipar Euskal Herrian, ez Nafarroan, ez Araban ere.

Laugarren neurketak zenbait datu utzi dizkigu gogoetarako, aurrekoekin


alderatuz gero: euskaldun komunitatearen barne-indarra eta garapen gogoia agerian gelditzen da. Ikerketa ezberdinek erakutsi dute. Txillardegiren eredu matematikoari jarraituz gero, euskararen erabilera, euskaldun kopurua zein den aintzat hartuta, espero daitekeena baino handiagoa da. Izan ere, ezagutza mailak erabilera %5aren inguruan koka-



ERABILERAREN BILAKAERAREN ERRITMOA

tuko luke, baina euskal komunitatean trinkotasunak datuei bertzelako isla ematen die. Euskaldunok euskaldunekin biltzeko joera erakusten du horrek, eta gure hizkuntzarekiko fideltasuna ere, bide batez.

Ondorioz, barne-faktoreei erreparatuta, bilakaera positiboa da, baina kanpo-faktore estrukturalak, sozio-politikoek nagusiki, kontrako eragin dute, eta hori gehien nabaritzen da, batez ere, euskararen normalizazioari oztopo gehien jartzen zaion eremuetan



ERABILERAREN BILAKAERA HERRIALDEKA

IBAIZABAL
argitaletxea
testu liburuak eta literatura
EUSKARAZ

IBAIZABAL argitaletxea Orue auzoa z/g • 48340 AMOREBIETA-ETXANO (BIZKAIA)
Tel.: 94 630 80 36 • Faxa: 94 630 80 28

K
CONSTRUCCIONES
ANTZIBAR
ERAIKUNTZAK

Bº Landeta s/n. Apdo. 176 - 20730 AZPEITIA
Oficina: 943 81 24 62* - Planta: 943 81 31 41
Ferralla: 943 81 38 85 - Fax: 943 81 66 19
Email: konstruk@antzibar.com

B
Bainu gela eta Sukaldeko
HALTZARIAK
Etxe barruko erreformak
Armairu barneratze lanak

parragirre
ZURGIN LANAK

Iru-Aterpe Etxea. 15. 2. ezk. (Buenos Aires auzoa)
20160 LASARTE - Tfnoa. 943 37 04 25

SOLOZABAL
AUTOESKOLA

LEKEITIO	94 684 18 00	MUTRIKU	943 60 41 35
MARKINA	94 616 65 60	ORDIZIA	943 88 72 76
ONDARROA	94 683 26 38	ORIO	943 83 08 12
AZPEITIA	943 15 18 41	PASAJA	943 51 11 37
DEBA	943 19 11 08	ZARAUTZ	943 13 49 03
DONOSTIA	943 39 28 33	ZUMAIA	943 86 14 16
EIBAR	943 70 23 84	ZUMARRAGA	943 72 04 52
IRUN	943 61 49 04		